

# ANTISECT



Orduan, zein da etsaia? Zeintzuk dira? Zeinek mugitzen ditu hariak? Gobernuak? Multinazionalak? "Horrek"? Bai, puntu bateraino, beraiek danak dira etsaia. Baina hau ez da egi guztia. Gutako gehienak ez gara iñozoak. Badakigu zer gertatzen den. Ikusi eta sentitu egiten ditugu ondorioak. Deskonektatuta sentitzen gara nundikan nabaritzen dugun poterea datorrela.

Deus balio ez duen gauzak egiten dituen jende asko dago munduan. Jende asko beraiena iristeko. Aukerarik ez duguna. Oso urrun daude guregatik eta gu kaskarregiak gara beraien kontuentzako.

Sinistarazten digue demokrazia batean bizi garela. Esaten digute zuzenean eragiteko gertatzen hari den guztian parte hartu behar dugula beraien sisteman. Baina, sinisten ez badugu beraien sisteman?

Eta ez badugu parte hartzen? Ez badugu bozkatzen? Ba izorratu egiten gara. Ez dugu hitzik gobernatuta gauden bitartean. Alternatiba bakarrik onartzen da sistemaren barruan aurkitzen bada, pikutara horrekin!

Nola liteke sinisten ez dugun sistema batean aktiboki partehartzea? Sistema honetan partehartzen ez dugunok automatikoki marginatuak izaten gara, at beraien funtzionamendutik. "Status Quo"-arentzako hau oso ondo dago. "Bide egokiak" erabiltzea ukatzen garen jendea gara. KK zaharra!! Ez ditugu "bide" hauek egokiak bezela hartzen. Orduan, bazter batean existitzen gara edo farsa hone tan parte hartu behar dugu. Igual dio zer egiten dugun edo nola bizi garen, ezin dugu beraien mugetatik at bizi. "Beraien" itzalak jarraitu egiten gaitu juten garen edozein tokira, munduko edozein txokora. Globalizazioaren esentzia.

Ez dago ihesbiderik.

Ondo sentitzen zara? Baikor? Argi dago guzti honek kezkatu egiten gaituela, bestela ez genuen idatzi hau egingo eta zu ez ziñan irakurtzen egongo. Gauza da, gauzak aldatu nahi baditugu, orduan komunikatzeko erak bilatu behar ditugula ezberdin pentsatzen dugunen artean. Bizkarreko bat ematea punk rock kontzertu batean oso ondo dago gau zaratatsu bat pasa nahi badugu, baina horrek ez du Mundua aldatuko. Benetako erronka hor kanpoan dago, McDonalds batean ahoa betetzen, ume "karrito" bat bultzatzen 16 urterekin edo belarra erretzen egun guztia. Denok egiten dugu ahal deguna bizirauteko. Gutako gehiengoa ez dugu begiztatzen orokorrean Nola dauden gauzak, "gurearekin" nahiko okupatuta gaudelako. Lehenesten dugu, eta hori ondo dago, baina ez du ezer aldatuko.

Zein da etsaia?